



**Elikak “European Research Area on Sustainable Animal Production” Cofund Susan ERA-Net sarean parte hartzen du Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren ordezkari gisa.**

---

## Helburua

**SusAnen helburua da estatu kideek eta bazkide parte-hartzaileek animalia-ekoizpenerako sistema iraunkorrei buruz elkarrekin egiten dituzten ikerlanak koordinatzea eta gauzatzea, iraunkortasunaren hiru oinarriak bermatuz (ekonomia, gizartea eta ingurumena).**

SusAnek animalia-ekoizpenaren fase guztiak hartzen ditu: osasuna, ongizatea, hazkuntza, elikadura, kalitatea eta elikagaien segurtasuna.

---

## Kideak

Sarea **Europako 22 herrialdeetako 38 erakundek** osatzen dute, eta H2020ren 5 milioi euroko finantzaketa du. Proiektua 2016ko martxoan hasi zen eta 2021eko otsailean bukatuko da.

SusAn Partzuergo (<https://era-susan.eu/era-net-consortium>)

---

## Deialdiak

**2016ko lehen deialdian**, SusAneko 23 bazkidek 16 milioi euro jarri dituzte **14 europako proiektu** (<https://era-susan.eu/content/research-projects>) finantzatzeko, Europako Batzordetik jasotzen duen Top-up finantzaketa barne.

2018ko Urriaren 8an zabaldu zen **SusAn sarearen eta beste 2 ERA-NETen (ERA-GAS eta ICT-AGRI 2) arteko bigarren deialdi** (<https://era-susan.eu/content/2018-joint-call-announcement>) bateratua honako gai honi buruz:

*"Animalia ekoizpeneko sistemetan berotegi-efektuko gasen isurpena murrizteko teknologia berriak, irtenbideak eta sistemak*

**". Gai horri buruzko proiektuen proposamenak aurkezteko epea 2018ko abenduan amaitu zen eta 2019ko ekainan azken proiektuek argitaratuko dute.**

---

### Informazio gehiago

---

SusAnen liburuxka ([http://www.era-susan.eu/sites/default/files/Factsheet\\_SusAn.pdf](http://www.era-susan.eu/sites/default/files/Factsheet_SusAn.pdf))

SusAnen webgunea (<http://www.era-susan.eu/>)

---

SusAnen aldizkaria ([https://mailchi.mp/8bcc9afdcc97/susan\\_newsletter\\_february\\_2018](https://mailchi.mp/8bcc9afdcc97/susan_newsletter_february_2018))  
**ELIKA** . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .  
[berri@elika.eus](mailto:berri@elika.eus) (<mailto:berri@elika.eus>)